

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuan garrantzitsuena bezeroak dira, horien baitan funtzionatzen baitugu, eta beraiek gabe ezingo genuke gure negozioa aurrera eraman. Beraz, bezeroa zehaztea nahitaezkoa da, horren baitan erabaki bat edo beste har dezagun eta hari hurbil gakizkion bidea aurkitzeko. Gure bezeroak elkarrengandik oso desberdinak izan daitezkeen arren gehienak helburu bera dute, insomnioaren aurrean irtenbide bat bilatzea.

Hasteko, gure merkatuaren segmentazioa zehaztuko dugu, gure proiektuaren bitartez zuzenduko gataizkien pertsonak zeintzuk diren identifikatuko ditugu. Hala ere, beste bezero motak ez ditugu alde batera utziko, proiektua handitzen eta aurrera jarraitzen laguntzen baitigute.

Argi dago insomnioa eta loaren nahasmenduak dituzten pertsonak izango liratekela gure bezero potentziala. Talde hau 25 eta 60 urte bitarteko helduek osatzen dute, eta zailtasunak izaten dituzte behin eta berriz lo egiteko edo gauean atsedean jarraitua izateko. Pertsona horiek laneko estresa, antsietatea edo osasun mentaleko arazoak (depresioa, adibidez) izan ohi dituzte. Kasu askotan, insomnioak bere



ongizate fisikoa ez ezik, eguneroko jarduerak, egoera emozionala eta harreman pertsonalak ere eragiten ditu. Horregatik, bizi-kalitatea hobetzeko irtenbide naturalen bila dabilta. Pertsona horiek lorako medikamentuak luzaroan erabiltzeak dakartzan arriskuez jabetu ohi dira, eta erosotasuna, eraginkortasuna eta onura terapeutikoak uztartzen dituzten alternatibak nahiago izaten dituzte. Gainera, eguneroko errutinan erraz txerta daitezkeen

eta esperientzia atsegina eskaintzen dieten produktuak baloratzen dituzte, gorputza erlaxatzen eta lo sakon bat errazten laguntzen dutenak. Esan beharra dagoen arren insomnioa geroz eta jende gazteagoen artean ugaritzen ari dela.

Bestalde, adineko personak ditugu. Segmentu honetan 60 urte edo gehiagokoak sartzen dira, adinari dagozkion osasun aldaketen eta bizi-estiloaren ondorioz loa hartzearekin arazo handia dutenak. Pertsonak zahartu ahala, ohikoa da lomaizago etetea, eta horrek nekea eta bizi-kalitatea murrizten ditu. Talde honi eragiten dioten arazo ohikoenen artean daude insomnioa, loaren apnea, gaueko esnatze sarriak eta artritis bezalako gaixotasuna lotutako mina. Erabiltzeko errazak, seguruak eta iraunkorrak diren produktuak balioesten dituzte talde honek, beren behar espezifikoetara egokitzen diren ezaugarriak dituztenak, hala nola material ez kaltegarriak. Era berean, hauetako askok sendagaiak hartzea eskatzen ez duten konponbideetan interesa dute, beren bizi-kalitatea hobetzeko ikuspegi naturalak eta ez-inbaditzaileak nahiago baitituzte.

Eguneroko errutinan integratzeko erraztasuna ere faktore garrantzitsua da, konplikazio gehigarriak ez duten produktuak bilatzen baitituzte. Azkenik, produktuaren diseinua eta funtzionaltasuna funtsezkoak dira segmentu horretarako. Hauetako asko bakarrik bizi dira edo zaintzaileen mende daude eguneroko zereginetan laguntzeko; beraz, erraz erabil ditzaketen produktu intuitiboak estimatzen dituzte. Onura fisikoak, emozionalak eta praktikoak konbinatuz gero, pisudun eta beroko mantak irtenbide ezin hobea dira adineko pertsonen loa eta ongizate orokorra hobetzeko.

Azkeneko segmentua psikologoek, terapeutek, errehabilitazio-zentroek eta pazienteen ongizate fisikoa eta emozionala hobetzen lan egiten duten beste osasun-erakunde batzuek osatzen dute. Profesional horiek tresna terapeutiko berritzaile eta fidagarrien bila dabilta etengabe, tratamendu konbentzionalak osatu ahal izateko, eta paziente bakoitzaren behar espezifikoetara egokitzen diren irtenbide pertsonalizatuak eskainiz.

Psikologoek, adibidez, askotan tratatzen dituzte antsietatea, estresa edo insomnia duten pazienteak, eta baldintza horiek eragin zuzena dute loaren kalitatean eta osasun mentalean. Kasu horietan, gure mantak antsietate-mailak murrizteko eta presio sakona estimulatzeko erlaxazioa errazteko tresna eraginkor gisa gomendatu daitezke, eta horrek nerbio-sistema erregulatzea eta atsedenaren kalitatea hobetzea ahalbidetzen du.

Bestalde, terapeuta okupazionalak eta beharrian bereziak dituzten hurrekin edo helduekin lan egiten duten integrazio sentsozialeko espezialistek ere hiperaktibitate sentsoziala lasaitzen eta pazienteengan lasaitasun-egoerak sustatzen lagunduko duten produktuak bilatzen dituzte. Pisu handiko mantak bereziki erabilgarriak dira testuinguru horretan, esperientzia sentsozial bat ematen baitute. Halaber, zenbait ospitaleek ere, beren instalazioetan geure produktua erabil lezakete.